



**Bilboko
Elizbarrutia**
DIÓCESIS DE BILBAO

JESUS BERRI ON DA

5. ERANSKINA

ERAGILE, KATEKISTA ETA GURASOENTZAT

**Delegación de Anuncio y Catequesis
Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**

I. ERANSKINA

I. Zorion-irrintzia

Zoriontasunen irakaspena estu lotuta dago Jainkoaren Erreinuaren irakaspenerekin.

II. Jainkoaren Erreinoa. Zoriontasunak

Jesusek bere bizitzaren eta eskaintzaren xede nagusia gure artean Jainkoaren Erreinoa hots egitea eta gauzatzea izan zen. Jainkoa gure bizitzan eta munduan Errege izatea da gerta dakigukeen gauzarik onena. Zoriontasunek Jainkoaren Erreinoa gure bihotzean onartzeko ezinbesteko jarrerak islatzen dituzte. Jainkoaren mundu berria ezartzen lagundu nahi dutenen jarrerak dira.

Batuetan, Zoriontasunak –eta baita Jesusen prediku oro ere- eskakizun moraltzat hartu ditugu, hau da, “izan eta egin behar doguna” direla ulertu dugu. Hala ere, beste ezer baino lehen, Jesusen ahotan Berri On dira, “zorion-irrintzia”, Jainkoaren Erreinoa edo mundu berria ezartzeak benetako zoriona ekarriko baitie batik bat bizi honetan gaizki pasatzen ari direnei, pobreei.

III. Zorioneko izateko aukera

Zoriontasunak “Ebanjelioaren bihotza” direla esaten da, hau da, “zoriontasunaren lege nagusia”, Jesusek ulertzen duen bezala. “Zoriontasunek, Jainkoak gizakiaren bihotzean jarri duen zorion-nahiari erantzuten diote”. Eliza Katolikoaren Kristau-ikasbidea, 1725.



Hori horrela izanik, zein da beren berritasuna? Ezin ditugu Zoriontasunak, besterik gabe, gizon eta emakumeek bizitzan gustura sentitzeko normalean hartzen duten bidearen parean, zorioneko izateko aukeratzat aurkeztu, lana, afektibitatea, familia, hartu-emanak... Jainkoaren gustuko diren bitarteko onak baitira zoriontsu bizi gaitezten. Beraz, zein da Zoriontasunen berritasuna?

Zalantzarik gabe, bikain laburbiltzen duten Ebanjelioak ezinbesteko bidea eskaintzen digu bizitzan ongi izateko; barne-askapenerako bidea. Honako hau ezinbestekoa da bi alderditan:

- Bizitzan Jainkoa aurkitzeko.
- Guztiekin anai-arreba bezala bizitzeko.

Eta Jainkoarekin eta anai-arrebekin –Jainkoarekin anai eta arrebengan- bat egitearen bi esperientzia hauek ezinbesteko esperientzia ditugu bizitzan gustura, zorioneko sentitzeko. “Nire zoriontasuna besteak zorioneko egitean datza” (T. De Chardin).

Lehenik eta behin, ezin dugu ahaztu Zoriontasunak, askapenerako bide edo Jainkoaren Erreinoa bizi nahi duten gizon eta emakumeen jarreraren bizipen bezala, aldi berean “dohain” eta “eginkizun” direla:

- Jainkoaren dohaina: Berari esker gauzatzen dira gure bizitzaren sakon-sakonean eta bere laguntzarik gabe ezin ditugu bizi, Berak ematen baitigu indarra, adorea, konfiantza...
- Giza eginkizuna: Dei egiten zaigu Jesusen jarrerak berak bizi ditzagun, Erreinuaren hedapenak aurrera egin dezan.

ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT

IV. Zoriontasunen sena

Bi idazki esanguratsutan jasotzen da Zoriontasunen multzo edo "zerrenda":

- "Mendiko hitzaldia", Mateo 5, 1-12.
- "Lautadako hitzaldia", Lukas 6, 20-26.

"Mendiko hitzaldia", Mt, 5, 1-12

"Mendiko hitzaldia", Mt 5, 1-12

Jendetza ikusirik, Jesus mendira igo zen. Eseri eta ikasleak hurbildu zitzaizkion. Orduan, honela hasi zitzaien irakasten:

"Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, haiek baitute Jainkoa errege.

Zorionekoak negarrez daudenak, haiek baititu Jainkoak kontsolatuko.

Zorionekoak bihotz gozokoak, haiek baitira jabetuko Jainkoak hitzemandako lurraz.

Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeko gose-egarri direnak, haiek baititu Jainkoak aseko.

Zorionekoak errukitsu direnak, haiek baititu Jainkoak erruki izango.

Zorionekoak bihotz-garbiak, haiek baitute ikusiko Jainkoa.

Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko.

Zorionekoak Jainkoaren nahia betetzeagatik erasotuak, haiek baitute Jainkoa errege.

Zorionekoak zuek, niregatik madarikatuko zaituztetenean, erasoka eta gezurrez gaizki-esaka erabiliko zaituztetenean. Poz zaitetze eta alaitu, handia izango baita zuen saria zeruan; zuen aurreko profetak ere halaxe erabili zituzten."

Zoriontasunak banan-banan aztertuko ditugu irakaspenak geure eginez.

Zorionekoak bihotzez behartsu direnak, apalak...

- Umilak
- Jainkoa errege dutenak.
- Jainkoarengan uste osoa dutenak.
- Beren itxaropena batez ere Berarengan oinarrituta dutenak.

Jakina, nekez izan daiteke norbait bihotzez behartsu, ondasun materialekin itsututa dagoenean; horregatik, arduraz jokatu behar du kontsumismoaren tentazioan ez jausteko eta bizirik irauteko behar-beharrezkoa ez duen, behartasun gorrian bizi den anai-arrebarik egon ez dadin. Jainkoarengan uste osoa jarrita bizi denak bereak ditu begirada errukitsua eta ondasunak banatzeko jarrera solidarioa.

Jarrera hori bizi dezaten jarraitzaileak "bat izango dira" behartsuekin eta bidegabeko egoera horretatik ateratzen lagunduko die, eta aukera honek aske egingo ditu eta bihotza pozez beteko die.

Zorionekoak negarrez daudenak, jasankorrek

- Gosez eta pobrezian direnak; bizitzan negarrez dihardutenak.
- Bizitzako zailtasunei adorez aurre egiten dietenak.
- Jainkoari aurka egiten ez diotenak, unerik gogorrenetan, atsekabez beteriko uneetan ere, Harengan uste osoa izan eta bidelagun dutela sinesten dutenak.
- Gaitzari gaitzez erantzuten ez diotenak, ona baizik.

Jainkoak zorioneko izendatzen ditu, Berak ez baititu eskutik uzten, sufritu egiten du beren sufrimenduekin, min hartzen du beren atsekabearekin. Kristau konpromisoak sufritzen, negarrez ari den, itxaropena galdu duen, justizia noiz jasoko zain den ororen ondoan kokatzen du Jesus.



ERANSKINA ERAGILE, KATEKISTA, GURASOENTZAT

Zorionekoak justizia egiteko gose-egarri direnak...

Zorionekoak Jainkoaren justizia, Jainkoaren borondatea ezagutzeko eta bizitzeko gose direnak. Bera Aitatzat aitor dezatela eta bere seme eta alabak senidetasunean bizi daitezela da Jainkoaren borondatea. Jainkoarentzat, hauxe da justizia egitea: gaizki pasatzen ari direnei beren egoera larritik ateratzen laguntzea, gosetiari jaten ematea, zuzentasuna gauzatzea, elkartasuna sustatzea.

Zorionekoak errukitsuak, bihozberak...

- Errukiz jokatzeko dutenak, hau da, besteekin bat egiten dutenak sufrimenduan.
- Behartsuez errukitzen direnak eta laguntzen dituztenak, gabezia materialei nahiz afektiboek, psikologikoei edo espiritualei aurre egin diezaieten.
- Barkatzen dakitenak, gurekin ulerbera eta bihozbera den Jainkoak bezala.

Jesusek, ebanjelioan, parabolez baliatuz, irakaspen hau helarazten digu: sarmariar ona (Lk 10, 25), azken epaiketa (Mt 25, 31-46), seme xahutzailea (Lk 15, 11-32), barkatzeari uko egin zion funtzionarioa (Mt 18, 23)... Jainkoaren borondatea entzuteko eta zuzentasun eta senidetasuna gauzatzeko eta hedatzeko irrika duten gizon eta emakumeak errukior eta bihozbera dira.

Zorionekoak bihotz-garbiak...

- Bihotz zintzokoak.
- Itxurakeriarik gabekoak, gardenak.
- "Oso-osoko" diren pertsonak.

Bihotz-garbi dena ez da aurreiritziez baliatzen, egiara irekitzen da, edonondik etorrita ere, eta beti besteengan dagoen alderdi positiboa ikusteko gaitasuna dute. Beren baiezkua, benetakoa baiezkua da.

Zorionekoak bakegileak...

- Bakegileak, ez baketsuak bakarrik.
- Gatazken erdian, zubiak eraikitzen dituztenak.
- Indarkeriak salatzeaz gainera, gatazketan sartu eta arriskuak hartuz, bakearen sorreraren alde egiten dutenak.

Jesusek ikasleak agurtzeko zerabilen shalom, bakea, guztiekiko harmonia eta senidetasuna da, eta Jainkoarengandik datorkigun dohain nagusia.

Zorionekoak zuzen jokatzegatik jazarpena jasaten dutenak...

- Munduan Jainkoaren zuzentasuna, maitasuna eta senidetasuna ezarri nahi izateagatik jazarritakoak.
- Ebanjelioaren arabera bizi nahi dutenak, hortik eratorritako zailtasun eta gatazkek onartuz.
- Jainkoaren Erreinuaren alde borrokatzen dutenak, uko egite pertsonalak, konfrontazioak, onespenei eza... onartuz.